

# Europar erakundeen jarrera hizkuntza gutxituekiko

Iñaki Agirreazkuenaga  
Xabier Iriondo Arana

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.39.1994.06>

AURKIBIDEA: 0. Sarrera. I. Europako kontseilua versus hizkuntza gutxituekiko Europar karta. II. Europar batasuna versus parlamentuaren erresoluzioak, auzitegiaren epaiak eta arlo ekonomikoko arauak. 1. Europar Parlamentua versus hizkuntza gutxituen aldeko erresoluzioak. a) Europar elkarteko gutxiengo lurraldear eta etnikoen hizkuntza eta kulturari buruzko erresoluzioa (1987). b) Europar elkarteko gutxiengo kultural eta linguistikoei buruzko erresoluzioa (1994). 2. Luxemburgoko Justizia Auzitegia versus derrigorrez bete beharreko epaiak. a) 137/84 Arazoa. Belgikako Ministeritza publikoa-Robert Heinrich Marie MUTSCH Jn.ren aurka. b) 379/87 Arazoa. Annita GROENNER-Irlandako irakaskuntza ministeritzaren aurka. d) 369/89 Arazoa. Piageme eta beste batzuk-PEETERSen aurka. 3. Komisioa eta Ministran Kontseilua versus arauak eta deklarazio lotesleak. a) Arau komunitarioen edukia eta Komisioak luzatutako txostena Ministra Kontseiluari eta Europako Parlamentuari kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak babestuen izan daitezen (1993.11.10). b) Peeters epaiaren ondorioz Komisioak luzatutako txostena elikagaien merkaturatzean erabili beharreko hizkuntza interpretatuz (1993.11.10).

## 0. Sarrera

Idatzi honen helburua azken urteotan Europa mailan hartu diren erabaki garrantzitsuenen gerturatzeko bat egitea izanik, egokia iruditu zaigu lehenik gaiari buruz aritu diren Europar instituzioen artean desberdintze bat egitea, materialki euskararen gain eduki ditzaketen eraginak bere elean kokatzearen.

Europa izenez ezagutzen dugun lurralde honetan lanean ari diren erakunde aniztasuna dela eta, hiritarrengan horrek sortzen duen nahasteaz kargu egiten gara. Hori dela eta, nahaste posible horiek argitzearen, hizkuntza gutxituei buruz erabakiak hartu dituzten instituzio nagusien arteko desberdintze bat egitera goakizue, horrela iturria argi izanik euskararengan erabakiok eduki dezaketen eragina ere argituko delakoan. Aldez aurretik adierazi nahi genuke erakunde hauek onartutako xedapenak balio juridiko desberdina eduki dezaketela, eta lehen hurbilpen batetan esan dezakegu derrigortasun osoa gure barne ordenamendu juridikoan, batzuk bakarrik dutela. Europako Kontseiluaren hitzarmenak, zein Europako parlamentuak onartutako erresoluzioak, printzipioz deklarazio edo gomendio dira gehienetan, beraien eraginkortasuna Europako Komisioaren baldintzapean edo

Estatu bakoitzaren borondatean daudelarik. Ikus dezagun beraz hurbilagotik, erakunde bakoitzaren ezaugarri nagusiak eta hartutako erabakiak hizkuntza gutxiekiko.

## **I. Europako kontseilua versus hizkuntza gutxituekiko Europako karta**

1949.urtean, 10 Estatu sorturiko gobernu arteko erakundea izanik, gaur Europako 32 Estatu osatzen dute erakunde hau. Partaide diren Estatu arteko batasun estuagoa dauka xedetzat baina batez ere, printzipio eta ideia amankomunak areagotzeko, inolaz ere integrazio helburuarekin. Hala ere, Estatu arteko kooperazioa bultzatzen da eta bere baitan, Estatu partaideetako kanpo arazoetako ministrariak biltzen dira, ministrariaren komitea izenez ezaguturiko organo gorenean. Ondorioz, Estatu partaideek eztabaida ondoren, adostutako hitzarmen eta akordioak onartzen dituzte. Normalean erakunde honek darabilen lanabesa, hitzarmen klasikoena da. Europako Kontseiluak hitzarmen hauek sinatzera gonbidatzen ditu Estatu partaideak, baina Estatu hauek, askatasun osoz eta beraien subiranotasunaren egikaritzan hartuko dute sinatzearen edo ez sinatzearen erantzunkizuna. Estatu batek hitzarmen bat ez sinatzea erabakitzen badu, inork ez ezerk ezin dio ezertara behartu, azken finean, Kontseilu hau. Estatu arteko topa gune edo foro bat da, zeinean printzipio komunak defentsarako elkar laguntza politikoa gauzatzen den, baina beti Estatuak dutelarik azken hitza. Ez dago, Estatuak bere kabuz onartzen ez duten betebeharrak inposatzerik.

Europar Batasunaren aurretik sorturiko elkar topo edo gerturatze foro hau, guztiz gaingaitu du Europar Batasunak. Elkar laguntza eta integrazioa aurkitzen dira hemen bi orientabide ezberdin bezala, bata Europako Kontseiluarena eta bestea Europar Batasunarena.

Europar Kontseiluak harturiko erabakien artean, bi dira guri dagokigun gaien aipamena merezi dutenak; bata orokorra, Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babeserako Europar konbenioa (aurrerantzean Erromako konbenioa bezala ezagutuko duguna) eta bestea hizkuntza alorrean konkretuki atxikitzen dena Europako lurraldeetako edota gutxiengo hizkuntzen karta.

Erromako konbenioak giza eskubideen zerrenda bat egiteaz gain, eskubide hauen babeserako antolamendu juridiko bat eratzen du. Antolamendu honen gailurrean Strasburgeko Auzitegia kokatzen da.

Auzitegi honek, giza eskubideekiko Estatu portaera epaitzen du eta Erromako konbenioaren arabera eskubide hauen urratzerik emango balitz, Estatu sinatzaileen aurkako epaia emango luke. Tamalez, Erromako konbenioak zerrendatzen dituen eskubide eta askatasunen artean, eskubide linguistikoak ez dira zuzenean agertzen. Ostera, Erroman sinaturiko testuak diskriminazio ezaren printzipioa jasotzen du bere 14. artikuluan: "Karta honetan agertzen diren eskubide eta askatasunen gozamena inongo

desberdintasunik gabe bermatua izango da eta bereziki (...), hizkuntza (...) edo gutxiengo nazional batetako partaidetzari dagokiolarik".

Artikulu honen arabera Erromako konbenioak hizkuntza gutxituen zeharkako babesa bermatzen du: Hizkuntz diskriminazioa Erromako konbenioaren 14. artikuluaen aurkakoa izango da konbenioak zerrendatzen dituen eskubideetarik baten egikaritzea oztopatzen bada.

Auzitegiaren babesa jasotzeko, ondoriozta dezakegu, hizkuntzarekin zerikusia duten eskubideen urratze bat argudiatu beharko dugula, hala nola, Hezkuntza eskubidea (Lehenengo Protokoloko 2. artikuluan) edo Defentsa eskubidea (Konbenioko 6. artikuluan); eta Hezkuntza eskubidearen ildotik etorri da, hain zuzen ere, arlo honetan eman den epai garrantzitsuena, Belgikako hezkuntzaren eraentza linguistikoari buruzko arazoa, 1968ko Uztailaren 23koa.

Kasu honetan, erregio Flamenkoan bizi ziren zenbait guraso Frankofonoek, eraentza linguistikoko zenbait artikulu aurkatu zituzten, beraien ustetan eraentza horrek Erromako konbenioko 14. artikulua eta lehenengo protokoloko 2. artikulua urratzen baitzuten beraien hezkuntza eskubidea modu diskriminatzaile batetan murriztuz.

Zehazki Belgiar Estatuari leporatzen ziotena zera zen: 1. Gune Flamenkoetan frantsesez emaniko irakaskuntzarik antolatu ez izana. 2. Erakunde pribatuek antolaturiko frantses eskolei subentziorik ez emateaz gain, bertan lorturiko ikasketa ziurtagiriak ez homologatzea. 3. Eskatzaileen seme-alabak Bruselako erregioan zeuden eskola frantsesetara bidaltzeko baimenik ez ematea, soilik beraien jaioterriaren arabera ez zegokielako Bruselan ikasteko aukera.

Belgiar gobernuak eraturako hezkuntza sistemak bi erregio linguistiko nagusien hizkuntz batasuna zeukan helburutzat, erregio bakoitzak (Bruselako erregio elebiduna ezik) hezkuntza sistema hizkuntza bakarrean edukiko zuelarik.

Bi printzipio aurkitzen ziren deman, auzitegiaren arabera, batetik lortu nahi den helburuaren bidezotasuna (Erregioen batasun linguistikoa) eta bestetik helburu hori lortzeko erabilitako bideak (Hezkuntzaren eraentza linguistikoa). Bien arteko erlazioa proportzionala den bitartean, auzitegiak ez du diskriminaziorik ikusiko, baina proportzionaltasuna hautsiko balitz orduan diskriminazioa egongo litzateke.

Kasu honetan auzitegiak erabaki zuenez "Belgiar gobernuak antolatutako hezkuntza sistemak bidezko helburu bat jarraitzen duenez —Batasun linguistikoa— eta erabilitako bideak proportzionalak direnez ez dago, lehenago bi eskakizunei dagokienez konbenioko eskubideen urratzerik". Ondorioz Belgiar gobernuak ez dauka gune flamenkoetan eskola frantsesik antolatzeko ez eta subentzionatzeko beharra.

Hirugarren eskakizunari dagokionez ordea, proportzionaltasunaren haustura nabaritzen du auzitegiak eta, ondorioz konbenioko 14. artikuluaen eta

lehen protokolo 2. artikularen urratzea. Auzitegiaren esanetan "Bere gurasoen jaioterria arrazoi bakartzat harturik, zenbait eskola zumeek Bruselasko eskola frantsesetara joatea debekatua edukitzeak diskriminazioa suposatzen du eta konbenioko 14. artikulua, protokoloko 2. artikularekin erlazionaturik, urratzen ditu".

Strasburgeko auzitegiak beraz, diskriminazio linguistikoa partzialki zegoela onartu zuen, epai hau oso estutzat eta eskubide linguistikoen ikuspegitik oso restriktibotzat hartua izan delarik zenbait adituen artean. Nola edo hala, guk azpimarratu nahi genuena zera zen, Strasburgeko auzitegiak ere hizkuntz diskriminazioa epaitu dezakeela Erromako konbenioaren arabera.

Aipaturiko beste erabakia, hizkuntza gutxituekin zuzenki atxikitzen dena, Europako Kontseiluaren batzar iraunkorrek, 1988. urteko Martxoan onartu zuen, Europako hizkuntza gutxiekiko Karta. "Hizkuntzen zaintza, sustapena eta promozioa Europak behar duen batasunerako eta herrien arteko harremanetarako oztopoa izan ezik, abantaila delakotan" batzar iraunkorrek Karta hau onartu ondoren Ministrarien Komiteari eta Parlamentarien Biltzarrari bidali zion, hauek, hitzarmen moduan onartu eta Estatu sinadurarako aurkeztu dezaten. Estatu partaideen artean, bakar batzuen oztupoak agertu baziren ere, hala nola, Frantzia, Britainia Handia, Grezia, Turkia eta Luxenburgorenak, azkenik, 1992. urteko Azaroaren 5.ean Europako Kontseiluak hitzarmen moduan onartzen du Estatu partaideen sinadurarako aurkeztuz eta sinadura gomendatuz. Edukiaren aldetik, Europako Kontseiluak "ezinbestekoa ikusten du Estatu partaideek beraien gutxiengo linguistikoak barne ordenamendu juridikoetan jasotzearen beharra, horrela, hizkuntza gutxituen zaintza eta ardura zein garapenerako baldintzak sortzearen". Bide batez, Estatu partaideek neurri zehatz batzuk hartzera bultzatzen ditu, besteak beste:

— Hezkuntza mailan: Hizkuntza gutxiak hizkuntza nazionalarekin parekatu beharra, eskolaurretik hasi eta unibertsitateraino.

— Administrazio eta judizio arloetan: Hizkuntza gutxiaren erabilpena bermatzea, herri administrazioetan zein administrazio eta zerbitzu deszentralizatuetan, bide batez hizkuntza gutxituen kalterako diren lege eta egintzak aldentuz eta iraungiz.

— Giza komunikabideetan: Hizkuntza gutxiak irrati-telebistetara iritsi daitezzen neurriak hartzea eta hizkuntza gutxita erabiliko duten profesionalen formakuntza suspertu eta sustapeneko neurritz laguntzea.

— Kultura mailan: Hizkuntza, eta hizkuntzarekin lotuak dauden beste zenbait arlo kulturalakiko infra egitura on baten sorrera, fundazioak, ikerketarako erakundeak, liburutegiak etab... sortuz, material egokiak prestatuz.

— Ekonomia eta gizarte mailan: Iragarkietan nahiz entpresariaren eginkizunetan, hizkuntzaren erabilpena suspertzea, hizkuntzan eginiko iragarkiak

ekonomikoki lagunduz, enpresen agiri eta rotulazioen hizkuntza aratzea lagunduz. Azkenik, eta hizkuntza baten erabilpen eremua bi Estatu partaideen mugen artean banaturik balego, elkar laguntza kulturala nahiz linguistikoa bermatuko duten egituren sorkuntza babestea eta suspertzea. Orohar, hauek lirateke Europako Kontseiluak Estaturen sinadurarako aurkezturiko neurriak. Estatuak bere kabuz erabakiko lukete zein den beraiek hartzeko prest dauden konpromesu maila, Kontseiluko Kartak gehiengoa eta gutxiengoa jasotzen dituelarik. Eta beraien borondatea hala bada, ez sinatzearen erabakia ere aske lukete, hala gertatu den bezala zenbait kasuetan. Zein litzateke guzti honek euskararekiko luken ondorioa?

Ondorioen aldetik eta hizkuntza gutxituen alde Europak egiten duen printzipio adierazpen bat dela salbu, euskararekikoak urriak direla esan behar da. Kartak esaten duena ikusirik, eta Hego Euskal Herriko egoera linguistikoa ezagutuz gero, segituan ohartuko gera, Kontseiluak eginikoa be-zelako adierazpen edo hitzarmenek ez dutela gurea bezalako egoera baten gain hainbesteko eraginik. Euskal Autonomi Elkartearen Kartak eskaintzen dituen neurriak legez gaindituak daude. Ezin da ordea gauza bera esan Nafarroan. Jakina denez, euskarak estatus eskasa dauka deituriko zona ez baskofono eta zona mixtoan, eta zentzu honetan lagungarriak izan litezke Kartan proposaturiko neurri batzuk. Bestela argi dagoena, Ipar Euskal Herriaren Karta honen edukiak suposatuko luken arnas berritzea da. Baina zein da gakoa? Lehenago esaten genuen bezala, Europako Kontseiluan azken hitza Estatuak daukate, kasu honetan Estatu Frantsesak, eta Estatu honek, tamalez oraindik ez du Karta hau sinatu. Beraz, eta Frantziar Estatuak Karta sinatzen ez duen bitartean, euskararen estatus, legala iparraldean hutsaren mailakoa izango da.

## **II. Europar batasuna versus parlamentuaren erresoluzioak auzitegiaren epaiak, eta arlo ekonomikoko arauak**

Europar Batasuna, Maastricht-eko hitzarmena indarrean sartuz geroztik, lehen Europako Elkarrekin Ekonomikoa izenez ezagutzen genuen sistema juridikoari ematen zaion deitura da. Batasun honen historia kontatzeak, 1957. urtetik aurrera, luze joko luke eta ez da guri une honetan dagokigun gaia, hala ere, azpimarratu nahi genuke, gaur egun 12, laster 16, Estatuak osatzen duten elkarrekinaren helburua batasun ekonomikoa eta politikoa lortzea izan dela.

Hau ez dugu soilik elkar laguntzarako eratutako sistema, benetako batasunaren edo integrazioaren bila dabilen sistema juridikoa baizik, eta hau da, hain zuzen ere, bere ezaugarri nagusiena, eta Europako Kontseilua bezalako beste erakundeekiko desberdintasun nabariena, batasuna dela bere norabidea, ez dela bakarrik elkar laguntzarako erakunde ekonomikoa. Batasun honen baitan, eta Batasun hau lortzearen, Estatu partaideek beraien subiranotasunaren parte bati uko eginez, Batasuna osatzen duten erakundeenganako

eskuduntza uzte bat egiten dute. Batasun honen baitan, erakundeek harturiko erabakiak Estatu partaideentzat zuzenki lotesleak dira Estatuak ez dute jadanik zenbait gaietan erabakirik hartzeko eskumenik, Europar Batasunak hartuko ditu beraien orde. Europar Batasunean, organo garrantzitsuenak lau izango lirateke: Parlamentua, Komisia, Ministrari Kontseilua eta Luxenburgoko Justizia Auzitegia. Hemen, alde batetik Parlamentuaren eginkizunak aztertuko ditugu lehenbizi, bigarrenez, Luxenburgoko Auzitegiak harturiko epaiak miatuko ditugu, hizkuntza izan dutenean helburu, eta hirugarrenez eta bukatzeko, Komisiaoren eta Ministrari Kontseiluaren eskuduntzak puntu berdinean jorratuko ditugu zeren eta organo hauek baitira berez botere exekutibo eta legegilea Europako Batasunean.

## **1. Europar Parlamentua versus hizkuntza gutxituen aldeko erresoluzioak**

1962. urtetik aurrera, Europar Parlamentua izenez ezagutzen dugun erakunde hau, Europar Batasuna osatzen duten erakundeetarikoa bat da. Europar Batasunak suposatzen zuen botere politiko sortu berria kontrolatzeko kapaza izango zen organo baten beharra, segituan ikusi zuten Estatu partaideek. Hau horrela izanik, Parlamentua izan zen lan horretarako eratutako organua, horrela, Estatu partaideek Batasunari eginiko eskuduntzen eskualdaketak sortu berri zuen botereari nolabaiteko itzal egiteaz gain, Batasunari legitimitate demokratikoa emateko. Gaur eguneko Europar Parlamentuak sortu zenarekin zer ikusi handiegirik ez badu ere, oraindik bere baitan gordetzen ditu, hasieratik nabari ziren akatsak. Estatu partaideetako hiritarrek hauteskunde zuzenetan aukeraturiko 518 parlamentariak osatzen duten erakunde hau, Parlamentu klasiko baten antzera antolatzen bada ere, Europako Estatuak ditugun Parlamentuen antzekoa izatetik urrun geratzen da, botere neurrian batez ere. Parlamentu izena edukitzeak ezin eraman gaitzake beste Parlamentuekin nahasteko tentaziora. Parlamentuak hainbat aldiz agertu duen intentzioa beste bat bada ere, eta azken urte hauetan —batez ere 1986. urtetik eta Maastrichtetik aurrera— jasan dituen aldaketak handiak badira ere, erakunde honen boterea oso urria da. Parlamentu izena edukitzearekin kontraesan bat badirudi ere, ez dauka botere legegilerik. Kontsultarako organoa da, gehienera kontseiluak harturiko zenbait erabakietan parte hartzeko ahalmena du, eta Komisia gomendioak eta erresoluzioak bidal diezazkioke, baina azkenean, Komisia izango da gomendio horiek jarraitzearen edo alde batera uztearen erabakia.

Parlamentua kontsultarako organo bat da, laguntzarako organo bat, inolaz ere lotesleak ez diren erabakiak ematen dituen organoa. Batzuetan erabaki horien pisu politikoa handia izan badaiteke ere, eskasa da beraien derrigortasuna eta berauek duten ondorio juridikoa. Parlamentuak duen eraginkortasun eza eta ahulezia Europako defizit demokratiko izenez ezagutzen den gaitzaren adierazgarri nabarmenena da. Azken finean, Parlamentuak

onarturiko erabakiak, erresoluzio moduan onarturikoak gehienak, gomendio hutsak edo printzipio deklarazio soilak bilakatzen dira, eta oso intentzio onarekin hartuak badira ere, ez daukate behar luketen ondorio juridikorik ez eraginik Estatu partaideen gain. Esandakoa oso argi edukirik, Parlamentuak onarturiko erresoluzio garrantzitsuenetara joko dugu, beti ere beraien eraginkortasun eskasa bistatik galdu gabe. Bi dira Europar Parlamentuak hartutako erabakien artean, lan honetarako aipagarrienak:

**a) *Europar elkarteko gutxiengo lurraldetar eta etnikoen hizkuntza eta kulturari buruzko erresoluzioa (1987)***

Europar Parlamentuak berak, urteetan gaiari buruz onarturiko erresoluzio zein aipamen ezberdinek izaniko eragin eskasaz jabetuz, 1983. urtean hizkuntza gutxituei buruzko neurriak hartu zitzaion eskatu zion Komizioari. Baina, berriro ere, saiakuntza honen oihartzun eta arrakasta ahula ikusirik, beste erresoluzio bat onartzea erabaki zuen. Europako Parlamentari zen Kuijpers jaunari txostengile lanak gomendatu eta hala, 1987.eko Urriaren 30.ean erresoluzio berri batek argia ikusten du.

Edukiaren aldetik, Europako Kontseiluak onarturiko Kartaren eduki berbera duenez—desberdintasun bakarra forma aldekoa da, izan ere, Kontseiluaren Karta artikulatua da eta Parlamentuaren erresoluzioa orokorra eta artikulatu gabea—Kartari buruz lehenago esandakoak balio du honen edukia ezagutzeko.

Aipagarria iruditzen zaigu hala ere, berriz Europar Parlamentuak Komizioari zuzentzen dion eskakizuna: "Elkarteko politika ezberdinen antolakuntzan, gutxiengo lurraldetar eta etnikoen hizkuntza eta kulturak kontutan izan ditzan, batez ere elkarteko kultura eta hezkuntzari buruzko ekintzak aurrera eramaterakoan."

**b) *Europar elkarteko gutxiengo kultural eta linguistikoei buruzko erresoluzioa (1994)***

Parlamentuak orain dela hilabete gutxi onartu duen txostenak, 15 puntu ditu. Ez da gauza berriegirik esaten puntu hauetan baina, Parlamentuak eskakizun berri bat luzatzen dio Komizioari, alegia, 1987.eko erresoluzioak jasotzen dituen neurriak egikaritu ditzala.

Testu berri honek, gutxiengo linguistikoen ezagutza ofiziala eskatzen die Estatu partaideei eta hizkuntza gutxituentzat estatutu legal baten beharra gogorarazten die.

Hezkuntza, Justizia, Kultura eta Administrazioan hizkuntza gutxituen erabileraren sustapena ere aipatzen du txostenak, baina Killilea jaunak aurkeztu zuen lehen zirriborroarekin konparatuz onarturiko testuak ez du neurri konkreturik zerrendatzen, aipamen orokorrak egiten ditu soilik. Testuak, diskriminazioaren aurkako borondatea agertzen du eta Europako Kontseiluak

onarturiko kartaren sinadura eskatzen die Estatu partaideei. Komisioari eskatzen dio. Estatuena lana lagundu dezan, neurri legal eta finantz laguntzaren bidez; zentzu berdinean, Komisioari eskatzen dio ez ditzala hizkuntza gutxituak ahaztu batasuneko politika ezberdinak bideratzerakoan.

Zoritxarrez, puntu hauen praktikotasunak errealitatean eskasa dirudi. Erresoluzio hauek gure ikuspegitik nahiko orokorrak izateaz gain, berez erresoluzio izateagatik gainean daramate beste zama bat: Bere derrigortasun eza. Erresoluzio hauek gomendio hutsak dira, autoritate morala eta iritzi publikoaren gain eragina izan dezaketenak baina juridikoki lotesleak ez direnak. Luxenburgoko Auzitegiaren epaiekin ez da gauza berbera gertatzen ongi ikusiko dugun bezala.

## **2. Luxenburgoko Justizia Auzitegia versus derrigorrez bete beharreko epaiak**

Europar Elkarteko zuzenbidearen interpretatzaile eta zuzenbide horren betearazle den organo juridikozionalaz mintzatuko gara orain. 1986.urtetik bi instantziaz osaturiko erakunde honen zeregina bikoitza da: Batetik, Elkarteko zuzenbidearen urratze bat eman denean, Estatuarena, entrepresena zein Europar elkarteko erakunderen batena, Luxenburgoko Auzitegiak, errekurtsoen bidez, urratzea ezagutu eta epaia ematen du, derrigorrez bete beharreko epaia eta neurri koerzitiboez betearazi daiteken epaia.

Bestetik, Luxenburgoko Auzitegiak, Elkarteko zuzenbidearen interpretatzaile bakar bezala, Estatuetak barne juridikzioko epaitegi zein auzitegiertzat lotesleak diren interpretazioak ematen ditu.

Hizkuntza arazoari atxikiz, eta orain arte ikusi dugunarekin bat eginez, konturatzen gara hizkuntzarena ez dela Elkarteko hitzarmen sortzaileen barne geratzen den gaietariko bat eta beraz, ez dela Auzitegiak zuzenean tratatuko duen gaietariko bat izango, baldin eta Elkarteko zuzenbidearen ardatz diren eskubide ekonomikoen bidean gurutzatzen ez bada. Hau izan da, hain zuzen ere, gertatu dena, eta hizkuntzak, eskubide ekonomikoekin izan duten harreman intzidentala dela medio iritsi da urritan, Justizia Auzitegira. Hiru dira hizkuntzarekin harremana duten auziak eta, hiru hauetan hizkuntzak langileen zirkulazio askatasuna edo produktuen zirkulazio askatasuna oztopatzeagatik aztertuak izan dira Luxenburgoko Auzitegian.

### **a) 137/84 arazoa. Belgikako Ministeritza publikoa-Robert Heinrich Marie MUTSCH Jn.ren aurka**

Auzi honetan deman zegoena, Langile komunitarioen hizkuntz eskubide berdintasuna zen, nahiz eta estatasuna desberdina eduki, baldin eta toki bereborean lan eta biziz gero.

Mutsch jaunak, Luxenburgoko estatasuna zeukanak, bere bizilekua eta lantokia Belgikan zituen, hizkera alemaneko komunitate batetan. Bertako



biztanleek alemana erabiltzeko eskubidea bazuten, Mutsch jaunak ere eskubide berbera eskatzen zuen, konkretuki, bere aurkako prozedura penal batetan alemana erabiltzeko eskubidea.

Auzitegiak arrazoia ematen dio Mutsch jaunari eta ondorioz, biztanle komunitarioen estatusunak ez dituela beraien hizkuntza eskubideak baldintzatzen esan dezakegu, denak komunitarioak izanik, eskubide berberak izango dituzte leku berdinean lan eta biziz gero.

**b) 3379/87 arazoa. Annita GROENNER-Irlandako irakaskuntza ministeritzaren aurka**

Auzi honetan deman zegoena, irakaskuntza publikoan lan postu bat lortzeko Mandar Errepublikako administrazioak egiten duen Gaelikoaren eskaera zen, nahiz eta lan postu konkretu horretarako hizkuntzaren ezagutza beharrezkoa ez izan.

Annita Groenner-en galdera hurrengoa zen: Hizkuntza ofizial baten ezagutza eska ahal daiteke Europar biztanle bati, nahiz bere lanerako beharrezkoa ez izan, ofiziala izateagatik?

Luxenburgoko Auzitegiak honela erantzun zion galdera aurrejudizial honi: Estatu partaide batek egiten duen eskakizun linguistikoa, hizkuntza ofizial baten babeserako eta promoziorako politika baten barnean kokatzen bada, guztiz zilegia izango da, nahiz eta lan postu konkretu horretarako beharrezkoa ez izan, beti ere proportzionaltasunez eta diskriminaziorik gabe egiten bada.

Ondorioz, epai honen garrantzia guretako kasuetarako begi bistan gelditzen da; hizkuntza ofizialak eska daitezke, hizkuntzaren promoziorako politika barnean kokatuz gero, nahiz hizkuntza hori gutxitua izan.

**d) 369/89 arazoa. Piageme eta beste batzuk-PEETERS-en aurka**

Deman zegoena, elikagaien etiketagea zen. Hain zuzen ere, 79/112 arau komunitarioak dionez, "elikagaien etiketagea erraz ulergarri den hizkuntza batetan egin behar da".

Peeters entresariak planteatzen zuen galdera honako hau zen: Belgiar Errege Dekretu batek, Flamenko hizkuntzako inguru linguistikoan merkaturatzen diren elikagaien etiketak Flamenkeraz itzultzeko derrigortasuna ezartzen badu, ez ahal da hori arau komunitarioen aurkakoa?

Auzitegiak esan zuenez, hizkuntza baten erabilera elikagaien etiketagean derrigorrez inposatzen duen arau bat, ez da legezkoa izango, nahikoa baita erraz ulergarria den hizkuntza bat erabiltzea, horrek produktuen zirkulazio askea bermatzen baitu. (Aurrerago aztertuko dugu honi buruz Komisioak luzatutako txostena).

### **3. Komisioa eta Ministrari Kontseilua versus arauak eta deklarazio lotesleak**

Europar Komisariak osaturiko taldea edo Europar Komisioa, Batasun Europarraren botere exekutiboa da. Goi mailako organo honen esku dago botere legegilearen parte handi bat, Ministrari Kontseiluarekin guztia eta botere exekutibo osoa.

Komisioarekin batera botere legegilea duen Ministrari Kontseilua, Estatu partaide bakoitzeko gobernuak batez, normalean ministrari batez, osatua dagoen organo kolegiatua da. Ministrari Kontseiluaren boterea erabakiorra da, bere baitan erabakitzen direlarik, gero Komisioak egikaritu dituen politikak. Ministrari Kontseiluak erabakia hartu eta Komisioak egikaritu eta kudeatzen du Europako politika.

Komisario izenez ezagutzen ditugun 17 partaideek osatzen dute Komisioa. Komisarioak, Estatu partaideetako gobernuak aukeratzen dituzte beraien arteko adostasunez. Komisarien lana, Europako Batasuna defendatzea eta Batasunaren interesen adierazgarri nabarmenena den organo honetan lan egitea izanik, Estatuengandik guztiz independentea da, eta teoriarik, ez dute beraien gobernuengandik inongo ordenurik zein aholkurik jasotzen, Batasunerako eta Batasunaren interesen defentsan ari dira lanean. Komisioa, Europar Batasuna sortzen duten hitzarmen sortzaileen zaindaria da, bere botere bikoitzaz hitzarmenak diona bete arazi eta garatzen du. Bere boterea, batetik politiko eta orokorra da eta bestetik administratibo eta teknikoa. Botere exekutiboa izanik, komisioarena da Europako politika egikaritu eta kudeatzearen lana eta lan honetan ez du orain arte inoiz kontutan izan hizkuntza gutxituen arazoa.

Gehien bat bere lana, gai ekonomikoetan fokalizaturik dago, eguneroko merkatal, nekazal, arrantza eta beste hainbat politiken egikaritzean. Beraz, Komisioak eta Ministrari Kontseiluak hizkuntza arazoak aztertu dituztenean, kontutan hartu duten ikuspegia gauza zehatz batetan oinarritu da: Ondasun edo merkantzien zirkulazio aske bat Europa barnean, gai hau kontsumitzaileen eskubide linguistikoekin uztartuz. Baina azken hizkuntz eskubide hauetan inoiz ere ez da kontutan eduki hizkuntza gutxituen normalizazioa, nahiz eta zentzu honetan Europako Parlamentuak dei egin duen.

Bi dira aztertu nahi genituzkeen erabakiak, biak 1993.eko Azaroaren 10.ean harturikoak.

#### **a) *Arau komunitarioen edukia eta Komisioak luzatutako txostena Ministrari Kontseiluari eta Europako Parlamentuari kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak babestuen izan daitezen (1993.11.10)***

Orain arte arau komunitarioetan, bai Erreglamendu bai Direktibetan ez dugu aurkitzen formula juridiko amankomunik kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak babesteko. Horrela, batzuetan, Ardoen merkaturaketan adibidez,

galdatzen dena zera da: informazioa sorrerako Estatuaren hizkuntza ofizialean emana izatea.

Beste batzuetan, esate baterako elikagai produktuetan, ikusi dugun bezala eskatzen dena da etiketagea idatzia izatea erraz ulergarria den hizkuntza batetan.

Baita ere, badaude gai honi buruz ezer esaten ez duten Direktibak edo eta nahikotzat jotzen dutenak kontsumitzaileen Estatuako hizkuntza ofiziala erabiltzea edo bertako hizkuntza ofizial bat anitzak direnean, hala nola hurrenez hurren, ehungintzan eta ekoizpen arrisksuetan.

Ondorioz esan liteke, ez dagoela arlo honetan, arau komunitarioetan jokapen bateratu ez sistematizatu. Aitzitik, arau bakoitzak xedapen desberdinak aukeratzen ditu, eta errealitate honen aurrean Komisioaren ustea da, ahal izanez gero, kontsumitzaileei bere hizkuntzan eman behar zaiela merkatal informazioa (1993.eko Azaroaren 10.eko txostena).

### ***b) Peeters epaiaren ondorioz Komisioak luzatutako txostena interpretatuz elikagaien merkaturatzean erabili beharreko hizkuntza (1993.11.10)***

Hizkuntzen erabilerak elikagaien merkaturatzearen gain duen garrantzia ikusiaz, eta honek sorturiko eztabaida argitzeko asmoz (batez ere Peeters epaiaren bitartez Luxenburgoko Auzitegiak emandako interpretazioa dela eta) Komisioak bidezkoa ikusi zuen gai honetan elkar aurkitzen diren printzipioen gogoeta bat Estatu partaideei adieraztea.

Komisioak argitu nahi duen arazoa honako hau da: Zenbait Estatu bere barne merkaturatzen diren elikagaien etiketak Estatuako hizkuntza ofizialean edo ofizialetan itzuli daitezkeen eskatzen die produktua saldu nahi duten merkatariei. Eskakizun honek, antza denez, Europako Batasunak sortzen duen merkatal produktuen zirkulazio askatasuna urratzen du, eta hala izanez gero, legez kontrakoa izango litzateke.

Komisioak argitu nahi lukeena zera litzateke: Estatu partaideek ba ahal daukate produktua merkaturatzen den lurralde linguistikoko hizkuntza ofizialak erabiltzeko exijentzia ezartzerik kanpotik datozen produktuen gain? Komisioak, bere txostenean, bitan banatzen du arazoa. Batetik maioristen komertzioa dago. Lehengaeikin aritzen diren merkataria hauek, estatu arteko komertzioan aritzen direnez, hizkuntza internazionalen ezagutza bere lanabes ezinbestekoa dutenez, ez dute arazorik planteatzen.

Arazoa ordea minoristek edo azken kontsumitzaileek planteatzen dute. Kontsumitzaile arruntek ez daukagu hizkuntza atzerritarrak ezagutzeko inongo beharrik.

Orduan, zilegi ahal du Estatu batek bere kontsumitzaileen osasuna babesteko eta produktu atzerritarren ezagutza bermatzeko, produktu horien etiketak bertako hizkuntza ofizialetan itzul araztea?

Peeters auzian ikusi dugunez, argi geratzen zena zera zen, elikagaien kasuan, produktuen argibideak erraz ulergarria den hizkuntza batetan eskeintzea

nahikoa dela, nahiz Komisioak gomendatzen duen hizkuntza erraz ulergarria bertako hizkuntza ofiziala/ak izatea. Estatu partaideek bermatu behar dutena, bere mugen barne saltzen diren elikagaien argibideak erraz ulergarria den hizkuntza batetan egin daitezela da, erraz ulergarri terminoak duen zabaltasun osoarekin.

Hizkuntza erraz ulergarria normalean hizkuntza ofiziala izango bada ere, horrek bere mugak izan ditzake, adibidez: Hizkuntza gutxituen kasuan, ofizialak izanik bere ulergarritasuna eskasa denean, badirudi ezin derrigortu daitekeela bere erabilpen eksklusiboa. Baita ere, ezin dena da, kasu guztietan Estatuko hizkuntza ofiziala asimilatu hizkuntza erraz ulergarri batetara. Ildo honetan jarraituz, arazoak planteatzen dira ere erraz ulergarri den hizkuntza eta erraz ulergarri diren terminoen artean. Gai honi buruz, Komisioak desberdintzen ditu zenbait espresio, bere ezagutza orokorra edo parekotasun ortografikoa direla eta, edo besterik gabe, hizkuntza ofizialean itzulpenik ez dutelako, erraz ulergarritzat hartzen direnak nahiz hizkuntza atzerriarrean idatzirik egon, hala nola, Soja, Pure, Made in, Cafe...